

Zuzendariaren agurra

Kaixo familia,
Uda amaitu zaigu eta hasi dugu jada ikasturte berria. Ilusioz hasi dugu, erronka berriei ekiteko gogotsu. Ikaslea erdigunean jarriko dugu eta horretarako, ikasle, familia eta langileon elkarlana sustatuko dugu. Ikastolako ateak zabalik daude, gerturatu! Ikasturte on bat izan dezazuela.

Nerea Erauntzetamurgil Manterola



Telefono mugikorrei eta smartwatchei buruzko arautegia ikastolan

Azken urteetan ikasleak ikastolara ekartzen dituzten Smartwatch edo erloju adimenduekin, egunerokotasunean arazoak izaten ari gara. Arazo horiek, aipaturiko gailu horiek dituzten jolas, kamera eta aplikazio desberdinek sortzen dizkigute.

Bestalde, gure ikasleen adina kontuan hartuta, ulergarria da gailu horien baliabide ugariak ongi kudeatzeko gai ez izatea.




Ondorioz, gai honekin loturik ikastolak duen arautegia bidaltzen dizuegu.

- Debekatuta dago telefono mugikor eta smartwatch-en erabilpena ikastolako ordutegian, jangela eta zaintza barne.
- Gailuak ezingo dira soinean eraman, motxilan gordeta eduki beharko dute.
- Ikastola ordutan itzalita edukiko dira.
- Irteeretan: Egun edo gaua pasatzeko irteeretan, telefono edo smartwatchen erabilpena ikastolan arautzen den berbera da.
- Arauak hautsiz gero, (ikastolan edo irteeretan), ikasleari gailua kendu egingo zaio, gurasoei deitu eta gailua gurasoei itzuliko zaie.

Ikasketa-beka

2024/25 ikasturterako Eusko Jaurlaritzak bideratzen duen beka eskatzeko epea **irailaren 30era** arte irekita egongo da.

Informazio guztia [hemen klikatuta](#) ikus dezakezue. Edozein zalantza argitzeko edo argibide gehiagorako idazkaritzarekin jarri harremanetan.



Era berean, Udarregi Ikastolak, irakaskuntzaren finantzazioari laguntzeko asmoz, **beka-sistema propioa** eskainiko die bere bazkideei. Beka-sistemaren baldintzak, aurkeztu beharreko dokumentazioa eta diru-laguntzaren zenbatekoaren inguruko xehetasunak [hemen klikatuz](#) irakur daitezke. Beka eskaera idazkaritzan aurkeztu beharko da, epea irailaren 30era arte irekita egongo da.

Ikastolako zerbitzuak eta prezioak

Ikasturte honetako Ikastolako eta zerbitzuetako kuotak jarraian adierazten dizkizuegu. Horien kobrantza **hilaren 16an** egingo da.

* Liburutruk.

Ekainean 60 euroko bermea kobratu zen eta iraileko erreziboekin batera, gainontzeko likidazioa kobratuko da. Prezioak honakoak izango dira:

- **LH:** 54,31 €

- **DBH:** 83,75 € + hautazkoak:

DBH4 Fisika/Kimika: 16,26 €

DBH4 Biologia/Geologia: 16,26 €

DBH1 Frantsesa: 18,13 €

* LH3 ingeleseko liburuak.

Liburu horiek merkatuan salgai ez daudenez, Ikastolak erosi eta ikasleei banatuko dizkie. Kostua 36,25 eurokoa da eta iraileko erreziboekin batera kobratuko dira.

* Kooperatibako kuota osagarria eta elkartasun-kutxa.

2024/25 ikasturtean Kooperatibako kuota osagarria hileko eta ikasleko **38,76 €** izango da. Elkartasun-kutxa, **4,10 €** hileko eta familiako. Kuota horiek **12 hilabetez (iraila-abuztua)** kobratzen dira.



*** Ikasle-asegurua.**

Ikaslearen istripu-asegurua urteko prezioa **15,60 eurokoa** izango da eta urrian kobratuko da. Zerbitzu mediku guztiak kontzertatutako zentzura joanez emango dira.

*** Bazkide kuota.**

Udarregi Ikastola guraso-kooperatibako urteko bazkidetza kuota **12,02 eurokoa** izango da eta azaroan kobratuko da.

***Garraioa.**

Garraio-zerbitzuaren hileko kuota **55,00 eurokoa** (12 hilabetez) izango da. Erabilera soltetarako zerbitzua eskainiko da. Horretarako, idazkaritzarekin jarri harremanetan.

***Goizeko zaintza.**

Goizeko 8:00etatik 9:00etara eskaintzen da zerbitzua. Arduradunak Idoia Encinas eta Iban Maritxalar izango dira. Kuota **28,00 euro hileko** izango da **10 hilabetez**. Egun soltetako aukera ere eskaintzen da eta **eguneko kostua 4,50 €** izango da.

***Jangela.**

Jangelako kuota, bazkaldar-kopurua eta jangelaren erabileraren arabera kalkulatuenez, izen-ematearen arabera kalkulatu da eta jakinaraziko zaizue buletin bidez. Iraileko menuak egun solteka kobratzen dira, menu bakoitza **8,00 €**. Jangelako menuen kobrantza hurrengo hilabetean egiten da.

Jangela-zerbitzua

❖ **Jangela-batzordea:** bertan jangela-zerbitzuaren eskaintzaz, funtzionamenduaz, antolamenduaz eta menuez hitz egiten da, besteak beste. Funtzionamenduaren jarraipena egiteko, bi hilabetez behin ordubeteko bilerak egiten dira. Bertan parte hartu nahiko bazenu, usurbil@ikastola.eus helbidera idatzi edo gelako tutoreari adierazi.

❖ **Iraileko menua:** jangela-zerbitzua irailaren 9tik eskaintzen da eta bazkaldarrek hilabete honetan izango duten menua honakoa izango da:

- [menu arrunta](#)
- [menu berezia](#)



❖ **Izen-ematea:** norbaitek jangela zerbitzua erabili behar izanez gero edo izena emanda egonik ez badu zerbitzurik behar, usurbil@ikastola.eus helbide elektronikora mezua bidaliz jakinaraziko du gutxienez bezperan 13:00ak aurretik. Idatziz jakinaraztea derrigorrezkoa da menuari dagokion deskontua aplikatzeko.

❖ **Ordutegia:** Eskolak goizez bakarrik direnean, jangelako ordutegia 14:30ean amaitzen da. Jangelako ikasleak atera edo hauen bila etortzeko ordutegia 13:30 -14:30 bitarte izango da patioko atetik. Ikasleak etxera bakarrik joateko baimena emateko usurbil@ikastola.eus mezua idatzi behar duzue.

❖ **Txandak:**

- **Eskolak goizez bakarrik direnean** txanda bakarra eskainiko da:
 - o Haur hezkuntza eta Lehen hezkuntzako ikasleek 12:30ean bazkalduko dute.
 - o DBHko ikasleek 14:30ean.
- **Eskolak goiz eta arratsaldez direnean** jantoki-zerbitzua bi txandatan eskaintzen da:
 - o Lehen txanda: 12:30etik 13:30era. HH 3., 4. eta 5. mailako eta LH 1. eta 2. mailako ikasleentzat. Ondoren, zaintza zerbitzua eskaintzen da.
 - o Bigarren txanda :13:30etik 14: 30era. LH 3., 4., 5. eta 6. mailako eta DBHko ikasleentzat. DBHko ikasleek lanaldi jarraia egiten duten egunetan bazkaltzeko txanda 14:30ean eskainiko da. Aurretik zaintza zerbitzua dago. Txanda honetako ikasleek 12:30etik 13:30era jantoki-zerbitzutik irten ahal izango dute gurasoen idatzizko baimenarekin.

Baso-eskola

Iaz bezala, aurten ere Baso Eskolaz gozaten jarraituko dugu, baina eremua prestatzeko gurasoen laguntza behar dugu. Beraz, auzolanerako deialdia egin nahi dugu **irailaren 28rako, larunbata. Goizeko 9:00etan Mahaspildegiko aparkalekuan** bilduko gara.

Egin beharreko lanak honakoak dira:

- Erreka arroa garbitu.
- Bertan dauden kainaberak pilatu.
- Zaborra bildu.
- Erreka zeharkatzeko zubia berreraiki.

Lanarako beharko ditugun erremintak:

- Eskularruak
- Aitzurrak eta palak
- Zakarrak biltzeko ontziak
- Orgak (karretillak)
- Motozerra



Aurrez, parte hartzera animatzen zaretenoi gure eskertza adierazi nahi dizuegu ikastolatik.

Bertsolaritza 2024/2025

Aurten ere, guraso talde baten eskutik, bertsolaritza-eskolak antolatuko dira LH5, LH6 eta DBHko ikasleentzat.

Noiz: astelehenero Udarregi eraikinean 12:30etik 13:30era eta 13:30etik 14:30era (urritik maiatzera).

Bertso-irakaslea: Lierni Rekondo

Urte osoko kuota: 65 euro

Kontaktua: 608 768 539 (Josu)



HAUR-HEZKUNTZA

Haur Eskolako haurren hutsegiteak

0 eta 3 urte bitarteko haurrak haur eskolara etortzen ez direnean, mesedez, ikastolako idazkaritzan jakinarazi, ahal bada, 10:00 aurretik haureskola@ikastola.eus helbidera idatziz edo 943.37.40.61 telefonora deituz.

HH ko guraso-bilerak

Ikasturte hasierako bilera orokorrerako datak jakinarazi nahi dizkizuegu:

- **HH 4:** Irailak 30ean
- **HH 5:** Urriak 1ean

Bilerak, **ikasleen geletan** egingo ditugu, **16:45ean**. Zaintza zerbitzua egongo da.

Txostena Alexia bidez bidaliko da.



HH gelan uzteko ur botilak/edalontziak

Gelan uzteko, ikasle bakoitzak bere ur botila edo edalontzi bat ekartzea eskatzen dizuegu.



LEHEN HEZKUNTZA

LH 3ko ingeleseko liburuak

LH 3ko ingeleseko liburuak liburu-dendetan salgai ez daudenez, Ikastola arduratu da horien erosketaz eta ikasleei banatzeaz. Liburu horien prezioa **36,25 €**-koa da eta iraileko erreziboarekin batera kobratuko da.



Guraso-bilerak LH

Bilera orokorretarako datak jakinarazi nahi dizkizuegu

- **LH 1:** Irailak 17an
- **LH 2:** Irailak 19an
- **LH 3:** Irailak 25ean
- **LH 4:** Irailak 24an
- **LH 5:** Irailak 23an
- **LH 6:** Irailak 26ean



Bilerak, **ikasleen geletan** egingo ditugu, **16:45ean**. Ez da zaintza zerbitzurik egongo.

Bileretako txostenak Alexia bidez bidaliko dira.

DBH

Guraso-bilerak LH

Bilera orokorretarako datak jakinarazi nahi dizkizuegu

- **DBH 1:** urriak 1an
- **DBH 2:** urriak 2an
- **DBH 3:** irailak 30ean
- **DBH 4:** urriak 3an



Bilerak, **ikasleen geletan** egingo ditugu, **17:00etan**.

Bileretako txostenak Alexia bidez bidaliko dira.

Irteera

Eguraldi txarragatik aste honetarako aurreikusita dauden txangoak datorren astean egingo dira. Data zehatzari buruzko informazioa datorren astean jasoko duzue etxean.



Liburutruk

Liburutruken parte hartzen duten ikasleei, liburuak, ikastolako lehenengo egun hauetan banatzen ari zaizkie. Liburuak jasotzearekin batera, ikasle bakoitzak liburu guztiak jaso dituela egiaztatu eta etxeetara bidali den inprimakia ikastolara sinatuta itzuli beharko du. Edozein gorabehera zuzentzeko 10 eguneko epea egongo da. Epe hori pasata, liburu guztiak behar bezala jaso direla ulertuko da. Ikasturte amaieran liburu guztiak egoera egokian (puskatu eta margotu gabe,...) itzultzen ez badira, bere kostu prezioan kobratuko dira.

Bigarren zatiaren kobrantza, irailean egingo dela jakinarazten dugu.

